

## Hitzaurrea

*Jorge Gutiérrez Goiria, Irati Labaien Egiguren*

(Hegoa Institutua, UPV/EHU)

2030 Agendaren adierazpena, eta han jasotzen diren Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH), orain dela sei urte baino gehiago onartu ziren. Ikuspegi zabal batetik begiratuta, eta nazioarte-mailan, esan genezake garapenari lotutako arazo globalei aurre egiteko proposamenik zabalena dela.

Adierazpen eta Helburu hauetara heltzeko eztabaidak askotarikoak izan ziren, eta Nazio Batuen Erakundeak maila honetako konpromisoa onartzea mugarrria izan da, zalantzarik gabe. Hala ere, paperean idazten dena errealitatera eramateko bidea luzea izan ohi da hainbatetan, eta, beraz, inplementaziorako borondatea ezinbestekoa izango da.

2030 Agendaren Adierazpenak egindako diagnostikoa gordina da, zinez. Era guztietako arazoen berri eman zuen (besteak beste, pobrezia, mota guztietako desberdintasunak, osasun-arriskuak, gatazken gorakada eta krisi humanitarioak), eta adierazgarria da ingurumen-gaietan jarri zuen arreta berezia.

Gai horiek guztiak 17 helburutan sustraitu ziren, eta, aldi berean, helburuok 169 jomugatan zehaztu ziren. Azken horien artean, inplementaziorako bidea emango dutenak ere aurkitu daitezke, nolabait prozesu horretan aurrera egitea ahalbidetuko dutenak.

GIHen plazaratzeak ekarri zituen berrikuntzak. Izan ere, ordura arte gertatu ez zen moduan, munduko herrialde guztiei dei egin zitzaizen agendarekin bat egin zezaten. Hots, «garatuak» deritzen lurraldeentzat sako-

neko erronka direnak ere zehaztu ziren; besteak beste, hauek: ekoizpen eta kontsumo arduratsua (12. helburua) edota klimaren aldeko ekintza (13. helburua).

Halarik ere, 2030 Agendak eta handik eratorritako GIHeK badituzte kontraesanak eta arazoak. Alde batetik, munduko egoeraren zergatietan gehiegi ez sakontzea leporatzen zaie. Bestetik, planteatutako helburuen eta inplementazio-prozesuen arteko distantzia handia dela nabarmendu daiteke, bai eta helburu horiek estatu-mailako edota tokiko esparruetara eramateko zailtasuna ere.

Horren harira, aipagarria da agenda tokian tokiko espazioetan txertatzea «betegarri-lan» bihurtu dela hainbatetan. Horrela, helburuak eta adierazleak jada egiten ari diren ekintzetara egokitzea bilatzen da, GIHen eta haien jomugen zerrendarekin parekatuz. Ikuspegi hori ez dator bat Agendaren izate eraldatzailearekin, azken honek aurrekoarekiko haustura izatea baitu helburutzat, teorian behintzat. Gaur egungo erronka konplexu eta larrien aurrean, ezinbestekoak izango dira errotuak dauden ekosistemen gehiegizko ustiapena edo ekoizpen- eta kontsumo-ereduak aldatzeko beste mota bateko ahalegin eta politikak.

Egiari zor, Nazio Batuen Erakundeko azken urteko jarraipen-txostenek helburuak betetzeko zailtasunen berri eman dute. 2020an jada ohartarazi zen globalki ez zela behar bezala aurreratzen ari horiek lortzeko, eta pandemiak aurreikuspenak hankaz gora jarri ditu, bai hezkuntzan, bai osasunean, bai eta gosearen areagotzean ere (azken hauetan atzerakada handiak nabarmendu dira). Esaterako, muturreko pobreziaren tasak gora egin du lehengo aldiz azken 20 urteetan, desberdintasunak ere areagotu egin dira, eta, horiekin batera, krisi klimatikoak eta biodibertsitate- edo poluzio-arazoen ere ez dute hobera egin. Zentzu honetan, Nazio Batuen Erakundeak azpimarratu du beharrezkoa dela aldaketa transformazionala egitea. Gizarte zibiletik egindako hausnarketek ere aspaldi ohartarazi zuten: ez da nahikoa politiken eta arauen eguneratzea egitea; aitzitik, garapen iraunkorraren muina aztertuta, aldaketak egin beharko dira maila guztietako gobernu eta erakundeetan.

EKAIAREN ale honetan, ezinbestekoak diren aldaketa-prozesu horiei lotutako hainbat gako islatzen dira, Garapen Iraunkorrerako Helburu askori lotuta. Horien artean aipagarriak dira osasunarekin, genero-berdintasunarekin, energiarekin, urarekin, hezkuntzarekin, askotariko ingurumen-arazoekin, ekoizpen eta kontsumo iraunkorrarekin edota 8. helburua eta hazkunde ekonomikoaren problemekin erlazioa dutenak. Bestetik, hainbat prozesuren eraginkortasuna hobetzeko ekarpenak aurkituko di-

tugu, alde teknikoak zein politikoak barneratuz. Oinarrizko errenta, edo eragile batzuen zereginari lotutako hausnarketak ere aurkituko ditugu.

Finean, Agenda 2030 eraikitzeke bidean dagoen espazio baten gisan ulertu behar da. Bidea zaila eta konplexua izango bada ere, abiapuntu egokia izan daiteke gizarte modura ditugun arazo larriak eragiten dituzten dinamikak eraldatzeko, eta, adierazpenak dioen gisan, bidean inor ez uzteko.